



Puntu interesgarriak Puntos de interés

A **Azerilepoko pagadia.** Gure arbasoek ikatza lortzeko egindako pago mugarratu zaharren babesean, etorkizuneko pagadi bikaina izango den pago gazteen landaketa dago, Hernaniko herritarrek 1974ko Zuhaitz egunean landaturikoa. Gune txikian, Hernaniko pagadien iragana eta etorkizuna ikusteko aukera bikaina da Azerilepoko pagadia.

Hayedo de Azerilepo. Bajo la sombra protectora de las viejas hayas trasmochas de las que nuestros antepasados obtenían carbón, se levantan otras hayas más jóvenes plantadas el "Día del árbol" del año 1974 por los hernaniarras. Podemos aquí disfrutar del pasado y del futuro de los hayedos de Hernani.

B **Pagosardeko pagadia.** Errenteriako udalerrian kokaturik, pago mugarratuz osaturiko pagadi bikainaren ertzeko zuhaitzek itzala ematen dute Pagosardeko atsedenekuan. Pago mugarratuak basogintzak urteetan zehar Euskal Herrian, eta bereziki Urumeako bailaran, eduki duen garrantziaren isla dira, bai eta egundaino aintzat hartu ez diren dibertsitate balio handiko zuhaitzak ere.

Hayedo de Pagosarde. Está situado en el término municipal de Errenteria. Las espectaculares hayas trasmochas que los conforman arrojan su sombra sobre la zona recreativa de Pagosarde. Constituyen una preciosa muestra de la importancia que ha tenido la técnica del trasmoches a lo largo de los años en toda Euskal Herria y en el valle del Urumea en particular. Recientemente se ha descubierto, que dicha técnica además contribuye notablemente a la biodiversidad del lugar.



F **Igorin-Akola estazio megalitiko.** Hernani, Astigarraga eta Donostiako lurretan zehar zabaltzen den estazio megalitiko honek Hernaniko udalerrian zazpi trikuharri ditu. Multzo Monumentalaren kategoriarekin, Kalifikaturiko Kultur Ondasun izendatua, Hernaniko Sagastietako Lepoa I izeneko trikuharria da hoberen kontserbaturik dagoena.

Estación megalítica de Igorin-Akola. Este conjunto megalítico se extiende por tierras de Hernani, Astigarraga y San Sebastián. Tan sólo en los terrenos de Hernani ya cuenta con hasta siete dolmenes. De entre ellos, considerado "Conjunto Monumental" y "Bien de interés cultural" el dolmen denominado "Sagastietako Lepoa I", el más bello y el que en mejor estado de conservación se encuentra.



G **Artamugarriak.** Artamugarriak Urumeako bailaran hain ohikoak diren saroeen erdia adierazten zuten harriak dira. Saroe edo saroi bezala ere ezagunak ziren gune hauen jatorria oraindik ere zalantzazkoa den arren, aintzina, basogintza-guneen baitan esparru "libre" garrantzitsu bat ziratekeela uste da. Ibilbide honetatik gertu aurkitu ditzakegunak bi dira: **Akola:** gure ibilbidetik kanpo, Akola baserriko lurretan dago kokatuta eta oraindik ere ongi kontserbaturik dago. Ikerkizaleek dierazi dutenez, saroeak gune eguteretan eraiki ohi ziren beti ere. Kasu hau, horren adibide garbi bat izan daiteke. Artamugarria erreferentziatzen harturik jartzen ziren baztermugarriak ikus daitezke oraindik ere, baserriaren inguruan. **Alkatxurain:** Egun errepidea eta baserriaren artean aurkitzen den uraskaren parte da eta garai batean inguruan saroea izanaren aztarna da.

Mojones de sel. Los "artamugarriak" son unos mojones de piedra muy utilizados en el valle del Urumea y que indicaban concretamente el centro del sel ó recinto. El origen de éstos seles es todavía incierto. Sin embargo se piensa que antiguamente delimitaban un recinto "libre" dentro de un entorno de explotación del bosque. En las proximidades de este recorrido podemos localizar dos mojones de este tipo, en concreto: **Akola:** Alejado un poco de nuestro recorrido y sito dentro de los terrenos del caserío Akola. Bien conservado hoy en día. Tal y como los investigadores apuntan que era costumbre hacerlo, está situado en un lugar muy soleado. Incluso alrededor del caserío se conservan todavía algunos de los mojones exteriores que se ponían tomando como referencia el central. **Alkatxurain:** Situado en una de las esquinas del abrevadero que hay entre la carretera y el caserío Alkatxurain, éste mojón es el vestigio de la presencia de un sel en dicha zona.

D **Malmazarko putzua.** Euskal Herrian urteetan zehar hezeguneak desagartarazteko egin den ahaleginaren ondoren, udalerrri asko hainbat espezieen biziraupenerako ezinbestekoak diren gune hauek berreskuratzeko ahalegina egiten ari da. Malmazarko putzua da horren adibideetako bat.

Humedal de Malmazar. El de Malmazar es un ejemplo del esfuerzo que algunos municipios de Euskal Herria están haciendo desde hace ya años para conservar los humedales. Evitando su desaparición o bien recuperándolos, las especies que de ellos dependen, perviven.



E **Izenederko pagadia.** Pago eta haritz mugarratuz osaturiko basoa. Pinu landaketak Euskal Herrian sartu ziren arte Usoko errekoak bailarako gunerik altuenean edukiko lituzketen pago eta haritz baso bikainen hondarra besterik ez da Izenederko eta era berean, hainbat fauna eta flora espezieentzako azkeneko bizilekua.

Hayedo de Izeneder. Bosque de hayas y robles trasmochos que constituyen una muestra de cómo eran, hasta que las plantaciones de pinos fueran ganando terreno, las zonas más altas del valle de Usoko erreka. Todavía hoy conforman el último hábitat para ciertas especies, tanto de flora como de fauna.



H **Ola zaharrera doan kanala.** Latsen bertan tximini handi baten itzalpean aurkitzen den Ola Zaharrera urak eramaten zituen kanala, ola honetako zatirik garrantzitsuenetarikoa zen, izan ere, elektrizidaderik ezean, ekoizpenak kanal honek eramaten zuen urarekiko dependentsia osoa zuen.

Canal de agua hacia Ola Zahar. Este canal, hoy en día difícil de distinguir en el terreno, llevaba el agua desde una presa situada aguas arriba en el arroyo de Usoko erreka hasta la fábrica vieja sita a la sombra de una alta chimenea en el barrio de Latse. A falta de electricidad, su producción dependía totalmente del suministro de agua. De ahí la importancia del canal que la transportaba.

I **Usokoerreka, ola zaharra eta Txirritaren oroigarria.** Latsera iristen ari garela Usoko errekarain egingo dugu topo, hainbat fauna eta flora espezie mehatxatzen bizileku den bailarari izena ematen dion errekarain. Latsen bertan, garai bateko ola zaharra aurkituko dugu, alkohola (erretzeko eta masaiatzeko), ozipina, alkitrana eta egur ikatza egiten ziren gunea. Gainera, Txirritaren oroigarria bertolari hernaniarraren jaioleku izan zen baserriaren alboan kokatzen da, bailarara sartu nahi duenari ongi etorria egin.

Arroyo Usoko, fábrica y monumento a Txirrita. Llegando a Latse nos encontramos con el arroyo de Usoko erreka, arroyo que da nombre también al valle y es hábitat de varias especies en peligro de extinción, tanto de flora como de fauna. En Latse mismo, se aprecian los restos de una antigua fábrica en la que se elaboraban productos tan diversos como alcohol, vinagre, alquitrán, carbón vegetal, etc... Además, el monumento a Txirrita, sito en las cercanías del caserío en donde nació el bertolari hernaniarra, nos da la bienvenida.

Hernaniko Ibilbide sarea

Red de senderos de Hernani

11,8 km. 3:45 h. 810 m.

Usoko errekoak bailara inguratzeko duen ibilbideak Hernaniko hirigunea, Ereñotzu eta Usoko errekoak bailaren ikuspegi bikainak ematen dizkigu. Aginagamendi, Urdaburu eta Igorin bezalako mendiak igaro eta bertako bistez gozatzeko aukera ez ezik pagadi zahar, estazio megalitikoak eta Txirrita bertolaria zenaren jaiolekua bertatik ikusteko aukera emango digu.

Este recorrido que rodea la cuenca del arroyo Usoko nos permite disfrutar de unas vistas interesantes del núcleo urbano de Hernani y de Ereñotzu. Andando junto a las cercanas cumbres de Aginagamendi, Urdaburu e Igorin, además de buenas vistas, pasaremos por viejos hayedos, junto a estaciones megalíticas muy interesantes y veremos el monumento al bertolari hernaniarra Txirrita.

Hernaniko ibilbide sarea osatzen duten ibilbideak:


- 1 Santa Barbara HIU-1
- 2 Sagardotegiak HIU-2
- 3 Oindiri bira HIU-3
- 4 Urruzuno HIU-4
- 5 Epele PR-Gi 1002
- 6 Ereñotzu SL-Gi 1002
- 7 Oberan PR-Gi 1001
- 8 Larregain
- 9 Usokori bira
- 10 Latse
- 11 Aparrain

Informazio praktikoa

Gaur egun ibilbide hau ez dago markatua. Hau dela eta, ez du bidea adierazten duen balizirik. Ibilbidearen ezaugarriak kontuan izanda, honen azalpen zehatza egiteko asko lutzatu ginateke, beraz, egingo dugun azalpenak, ipar horratza, altimetroa edo GPS-aren laguntza beharko du norabideak ondo hartzeko. Ura eramatea derrigorrezkoa da. Pagosardeko atsedenekua geratu eta indarrak hartzeko gune zoragarria da. Zailtasun ertaineko ibilbidea da. Hasierra gogorra du eta igoera metatu nahiko handia, baina gainerakoan ibilbide benetan interesgarria da. Kontutan hartzeko da ehiza garaian Akola-Igorin mendti lerroan harreta handiz ibili beharko dugula ehiza-postu ondotik pasatzerakoan.

Información práctica


A fecha de hoy el recorrido no está marcado y por tanto carece de balizas indicativas del mismo. Dadas las características del recorrido una descripción detallada del mismo resultaría ser demasiado extensa, por lo que la descripción que aquí hacemos, debería, sobre todo para quien no conoce bien la zona, ser acompañada de otros elementos que nos faciliten la orientación, tales como mapa, brújula, altímetro o bien GPS. Es imprescindible llevar agua. La zona de descanso de Pagosarde es ideal para hacer una parada y reponer fuerzas mientras disfrutamos del entorno. Recorrido de dificultad media, con una fuerte subida al principio y ascenso acumulado grande pero, por lo demás, lleno de interés. Anotar que en época cinegética deberemos prestar atención en la zona del cordal Akola-Igorin en la que pasaremos junto a puestos de caza.



Nondik hasi Punto de partida

Hernani eta Goizueta herriak lotzen dituen GI-3410 errepidearen 6,4 kilometroan Latse etxea dago eta ibilbideak hementxe du hasiera.

El recorrido parte desde la casa Latse, sita en el kilómetro 6,4 de la carretera GI-3410 que une Hernani con el pueblo navarro de Goizueta.



Ibilbidearen deskribapen zehatza Descripción del recorrido

Latse Latse

"Puig-Latxe" etxearen parean dagoen bidegurutzetik emango diogu hasiera ibilbideari. Hemendik, Goizuetara doan asfaltozko errepidea jarraituko dugu 100 bat metroz, begi-bistan dugun Abillats baserriaraino iritsi arte. Puntu honetan, errepidea utziko dugu eta aldapa gora baserria inguratzen duen pista harturik, minutu gutxitan Txabolategi baserriaren alboan bukatuko dugu. Hemen eskuinera ateratzen den harriz osaturiko pista hartuko dugu, langa metalikoa zeharkatuko dugu eta aldapa gora egingo dugu bidegurutze batekin topo egin arte.

Partimos del cruce que hay frente a la casa de "Puig-Latxe". Seguimos durante 100 metros la carretera, en dirección Goizueta, hasta llegar al caserío Abillats que tenemos a la vista. En este punto, abandonamos la carretera para tomar la pista que frente al caserío asciende la ladera para bordearlo y que en pocos minutos acaba junto al caserío Txabolategi. Tomamos aquí la pista empedrada que sale hacia la derecha, a través de una langa metálica y en fuerte ascenso nos lleva hasta una bifurcación.

Bidebanatzea Bifurcación

Hemen pista aldapa gora egiten du eta bortizki egiten du ezkerretara, baina gure eskuinera ateratzen den pista hartuko dugu. Hemendik aurrera, 40 bat minutuz, bidegurutze, sigi-saga eta bidebanatze asko aurkituko ditugu, baina gure beti arau berdina jarraitu beharko dugu: beti malda gehien duen pista hartu beharko dugu. Honela egingez, Azerilepoa leporaino iritsi beharko genuke, hemen pista bukatu egingo baita.

Aquí la pista gira fuertemente a la izquierda en ascenso, pero nosotros tomaremos la pista que sale por la derecha. De aquí en adelante y durante unos 40 minutos hay muchos cruces, zig-zags, bifurcaciones, pero en todo momento deberemos seguir la misma norma: elegir siempre la pista que más rápidamente ascienda. Si lo hacemos así, deberíamos llegar hasta el collado de Azerilepoa en donde la pista se acaba.

Azerilepo Collado de Azerilepo

Lepoan, behin pista amaituta, alambre-hesi batez inguratutako aurkituko dugu gure burua. Hesi honek angelu zuzen bat egingez, ezkerretik eta parean bidea oztopatuko digu. Ezkerreko hesia zeharkatu eta pinudi azpitik zuzen aldapa behera joango gara bidezidor batekin topo arte. Eskubiruntz joanez berehala gertu dagoen Elorrietako leporaino igoko gara. Hemendik ere gora egingo dugu, pagadi eder baten azpitik igaroko gara eta bide argi bat hartuko dugu pista balizatu batekin topo egingo dugun pinudi batera iritsi arte.

En el collado, finalizada la pista nos vemos rodeados por una alambrada, que en ángulo recto, nos cierra el paso por nuestra izquierda y también de frente. Atravesamos la alambrada de la izquierda para descender directamente bajo un pinar hasta encontrarnos con un sendero que siguiéndolo por la derecha, en breve irá ascendiendo hasta el collado de Elorrieta. Desde aquí ascendemos un poco, pasamos un bonito hayedo y bajamos por camino claro hasta un pinar en el que nos encontramos con una pista balizada.

Akolako aparkalekua Aparcamiento de Akola

Akola baserri azpiko bidegurutze nagusia. Hemendik, ezkerretara gaztania arbolez osaturiko baso baten azpitik aldapa behera doan bidea hartuko dugu eta ezkerretara kurba handi bat egingo dugu. (Pista hau PR baten gurutzaz dago markaturik). 8 minututan Alkatxurain baserriaren albotik doan pista asfaltatu batera iritsiko gara.

Cruce principal bajo el caserío Akola. Desde aquí tomaremos una pista que descendiendo se interna en un bosque de castaños dando una amplia curva hacia la izquierda. (Esta pista está marcada con un aspa de PR). En 8 minutos salimos a una pista asfaltada junto al caserío Alkatxurain.

Alkatxurain Alkatxurain

Aldapa behera egiteko baserria atzean utzi eta berehala, pista bitan banatzen da. Baina kontuz: guk, bi bideen artean doan bidezidorra hartuko dugu. Basoan sartzen den bide ez oso argi bat da bidezidorra. (Urtaroen arabera sasiz bete egon daiteke. Horrela balitz, ezkerreko pista hartuz ere, hurrengo puntura iritsiko ginatke). Sei bat minututan, egoera txarrean dagoen egurrezko langa zeharkatu ostean, bidegurutzea pistara gerturatan da, zalditegi baten ondoan.

Nada más rebasar el caserío para seguir descendiendo, la pista se bifurca. Pero, atención: tomaremos un sendero que por el medio, entre ambas pistas, y desdibujado, se interna en el bosque. (Según la época puede estar cubierto de maleza. En tal caso optaríamos por ir por la pista de la izquierda hasta el siguiente punto). El sendero, en poco más de 6 minutos y tras cruzar una pequeña langa de madera en mal estado, se asoma a una pista, junto a un establo de caballos.

Asfaltozko pista Pista asfaltada

Baina kontuz: pista hartu eta seguitan, pausu batzuk beherago, pista asfaltatu hau utzi egingo dugu, basoan aldapa behera gogorrean sartzen den bidezidorra hartzeko. Beste 6 bat minututan berriro ere asfaltozko pistara aterako gara, eta oraingoan bai, Txiritaren oroigarria dagoen bidegurutzeraino jaitziko gara bide honetatik.

Pero atención: enseguida, sólo unos pocos pasos más abajo abandonamos la pista asfaltada para tomar a nuestra izquierda un sendero que baja fuertemente adentrándose en el bosque. Y en otros 6 minutos salimos de nuevo a la pista asfaltada que, ahora sí, la seguiremos descendiendo hasta el cruce del monumento a Txirrita.

Txiritaren oroigarria Monumento a Txirrita

Txiritaren oroigarriaren bidegurutzea. Eskuinera bira egingo dugu, ibilbidearen hasieran hartu dugun bide bera hartuz, bidearen abiapuntura itzultzeko.

Cruce del monumento a Txirrita. Giramos a la derecha, y a pocos metros llegamos al cruce de Latse, punto de partida del recorrido.

Bidegurutzea basoan Cruce en el bosque

Zeharkako pista balizatuarekin topatzean, ezkerretara jarraitu beharko dugu. Minutu gutxitan Urdabururen magalera iritsiko gara, ibilbide balizatuaren bidegurutze batera, non seinale-tantaita bat aurkituko dugun. Al encontrarnos con la pista transversal y balizada, debemos seguirla hacia la izquierda, que en pocos minutos asciende hasta otro cruce con un poste indicador a los pies del Urdaburu, a su vez cruce de otros senderos balizados.

3,0km
1h 13m
UTM ED50 30T X=588546 Y=4787650

Zutoin balizatu Posteo balizado

Seinale-tantaitatik aurrera doan eta gero sigi-saga egiten duen pista hartu beharko dugu, magalean gora gogor egiteko. Berehala pista zabal batetik joango gara, Urdaburu mendia inguratuko dugularik, hau gure eskuinean utziaz. Basotik 10 minutu ibili ostean, bidebanatze garbi batean ezkerretik behera egingo dugu eta berehala Pagosardeko atsedenekura iritsiko gara. Hemendik aurrera Zuarkazu mendien ezkerretatik behera doan pista zabalatik jarraituko dugu. Adi egon beharko dugu, izan ere, seinale-tantaita bat duen hurrengo lepora iristean, pista utzi beharko dugu eta. Desde el poste indicador debemos tomar la pista que, de frente y luego en zig-zag, va ascendiendo fuertemente la loma. Pronto discurriremos por pista ancha que va bordeando el monte Urdaburu dejando éste a la derecha. Tras 10 minutos de marcha por bosque, en una clara bifurcación descendiremos por la izquierda y en breve estaremos en el área recreativa de Pagosarde. Desde aquí continuamos por la pista ancha que va descendiendo ligeramente por la izquierda del monte Zuarkazu estando atentos, ya que al llegar al siguiente collado, con poste indicador, debemos abandonar la pista.

3,2km
1h 20m
UTM ED50 30T X=588735 Y=4787803

Desbideratzea Desvío

Puntu honetan, orain arte jarraitu dugun bidea utzi beharko dugu, ezkerretik, pixkanaka gora, ote arteatik doan bidea hartzeko. Bide honek Malbazarreko hezegunera eramango gaitu. Hezegunera iristean, ezkerretara egingo dugu bira, bide argirik gabe, pagaditik zuzenean jaisteko. Metro gutxitan pista batera iritsiko gara. Hemendik aldapa behera leuean hasieran eta gero gogor behera egingez, mugarrira dagoen bidegurutzera iritsiko gara. Hemendik, parean dagoen bidea hartuko dugu, muinotik, altuera galduta, Bentatxuriko baserriaraino iritsi arte. Bertan, perpendicularki, bide asfaltatu bat gurutzatuko da gure aurrean.

En este punto abandonamos la pista que seguíamos hasta ahora para tomar un camino que por la izquierda, entre argoma, asciende un poco y nos lleva en breve hasta el humedal de Malbazar. Llegados al humedal, giramos a la izquierda para bajar directo a través del hayedo, sin sendero claro, pero que nos llevará en pocos metros a un camino que por la derecha irá bajando, suave al principio, pero enseguida en fuerte descenso hasta un cruce de senderos en el que hay un mojón. Desde aquí continuamos el camino de frente, por la loma, sin perder altura, hasta llegar al caserío Bentatxuri, en el que un camino asfaltado se nos cruza perpendicular a nuestra marcha.

5,6km
2h 00m
UTM ED50 30T X=589963 Y=4789241

9,4km
3h 08m
UTM ED50 30T X=586859 Y=4789058

Bentatxuri Bentatxuri

Guk, generaman noranzko berdina jarraituko dugu, asfaltozko bidea gurutzatuz eta parean dugun harrizko pista hartuz. Pista honek Igorin mendia inguratuko du ezkerretik. 20 bat minututan, tranpa kanadiar bat dagoen bidebanatzean eskuinera hartu ostean, Igoringo lepora iritsiko gara. Continuamos la misma dirección que traíamos, atravesando para ello el asfalto y tomando una pista empedrada que tenemos enfrente. Este pista ira bordeando el monte Igorin por su izquierda. En unos 20 minutos de marcha, poco después de haber tenido que elegir el camino de la derecha en una bifurcación con tranpa canadiense, llegamos al collado de Igorin.

6,7km
2h 22m
UTM ED50 30T X=589183 Y=4789732

Igoringo lepoa Collado de Igorin

Behin lepora iritsita, tranpa kanadiarra gurutzatu gabe, pista utzi beharko dugu ezkerretik, hesiari paralelo doan bidea hartzeko. Minutu gutxian, gure bidea zeharkatzen duen pista batekin egingo dugu topo. Llegados a la altura del collado, sin rebasar la tranpa canadiense que nos encontramos, debemos abandonar la pista para coger el sendero que sale por la izquierda y discurre paralelo a una alambrada. En pocos minutos nos encontramos con una pista que se nos cruza en el camino.

7,5km
2h 44m
UTM ED50 30T X=588514 Y=4789887

Pista Pista

Baina pista honi muzin egingez, pista zeharkatu eta aldapa gora jarraituko dugu bidezidor ez oso argi batetik. Harri zati handiz osaturiko igoera motz baina trakets baten ondoren mendia gainetatik jarraitzen du bideak. Pixkanaka behera egingo dugu hurrengo leporaino. Haciendo caso omiso de la pista, la atravesamos, siguiendo la dirección que llevábamos y ascendiremos por un sendero no muy claro que entre rocas un tanto abruptas nos lleva hasta una pequeña cima. Siguiendo el sendero que va por la loma, bajaremos hasta el próximo collado.

7,9km
2h 48m
UTM ED50 30T X=588150 Y=4789730

Akolako lepoa Collado de Akola

Hemen, noranzko berdina jarraituz, igoera motz eta gogor batetik Akolatxara gainera iritsiko gara. Hemendik behera egingo dugu hurrengo leporaino. Una vez en el collado, seguimos la dirección que llevábamos. Una corta pero fuerte subida nos llevará hasta la preciosa cima de Akolatxara. Continuamos ahora descendiendo hasta el siguiente collado.

8,6km
2h 56m
UTM ED50 30T X=587516 Y=4789390

Sarzetako lepoa Collado de Sarzeta

Lepo honetan dagoen linea elektrikora ailegatu gabe, Sagastietako Lepoa izeneko trikuharriaren albotik ezkerretara, aldapa behera doan pista hartuko dugu. Baso bat zeharkatuz, beste pista batean sartuko gara eta tranpa kanadar bat zeharkatu ostean bidea jarraituko dugu, Akolako atsedenekuko aparkalekuraino.

Llegando al collado y justo antes de pasar bajo la línea eléctrica, deberemos cambiar de rumbo girando fuertemente a nuestra izquierda para bajar por una pista que pasando junto al dolmen de Sagastietako-lepoa se adentra en un bosque. Al salir del bosque, nos metemos en una pista y atravesaremos una tranpa canadiense. Desde aquí, siguiendo la pista, en pocos minutos llegamos al pequeño aparcamiento del área recreativa de Akola.

9,4km
3h 08m
UTM ED50 30T X=586859 Y=4789058

11,8km
3h 45m
Latse
Latse
UTM ED50 30T X=586658 Y=4788107